



ONI-REN NAZIOARTEKO LANTEGIA

Ingurumen arloko gobernantza egokia: Ombuds erakundeen eginkizuna ingurumen-
eskubideak babesteko orduan

Vitoria-Gasteiz, 2018, maiatzak 16-17

Naturako eta ingurumeneko baliabideak ondo kudeatzea oso garrantzitsua da garapen jasangarria lortzeko. Hala ere, zenbaitetan ez da nahikoa izaten Espainiako eta Europako legedia, ingurumen arloko akordio aldeaniztunak eta beste ingurumen-neurri batzuk gauzatzea, batez ere garapen eta trantsizio prozesuan dauden herrialdeetan. Gero eta adostasun handiagoa dago gai honen gainean: **governantzak eragin handia du ingurumen arloko ekintzetan eta emaitzetan. Zuzenbide Estatua, informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justizia berdintasunez jasotzeko eskubideak dira garapen jasangarria lortzeko oinarria.** Testuinguru horretan, lantegi honen bidez aztertu nahi da Ombuds erakundeek nola indartu dezaketen ingurumen arloko legeria (akordio aldeaniztunak barne direla) eta beste neurri batzuk, ingurumen arloko gobernantza egokia sustatuz.

- Antolatzailea:** Arartekoa – Euskadiko Herriaren Defendatzailea (ONIren 2018rako jarduera-egutegiaren barruan).
- Egunak:** 2018ko maiatzaren 16a eta 17a.
- Tokia:** Vitoria- Gasteiz, Europa Jauregia. Gasteiz hiribidea 85. Estibaliz aretoa.



EGITARAUA

Asteazkena, 2018ko maiatzaren 16a

TOKIA: EUROPA JAUREGIA. VITORIA-GASTEIZ

9:00 - 9:15 – EGIAZTAGIRIAK

9:15 - 10:00 – HASIERA EMATE OFIZIALA

- **Iñigo Urkullu** Euskal Herriko lehendakaria, **Bakartxo Tejeria** Eusko Legebiltzarreko lehendakaria eta beste euskal agintari batzuk.
- **Peter Tyndall** ONiko lehendakaria eta Irlandako herriaren defendatzailea.
- **Manuel Lezertua** arartekoa - Euskadiko herriaren defendatzailea.

10:00 - 10:30 – Kafea hartzeko etenaldia

10:30 - 11:00 – ESPARRU PONENTZIA

Ingurumen osasungarria izateko eskubidea oinarrizko eskubide gisa, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren argitan

Munduan nahiz Europan, gero eta kontzientziazio handiagoa dago ingurumen osasungarri eta jasangarria izateko azaleratu den oinarrizko eskubidea aitortu, sustatu eta babestu beharraz. Giza eskubideen ikuspegitik, kalitateko ingurumen osasungarria izateko eskubidea oinarrizko eskubidea da; horren izaera eta ezaugarriak ez dira aldatzen denboraren poderioz edo noiz-nolako aldaketen ondorioz. Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko xedapenetan aitortutako eskubide batzuen norainokoa interpretatuz onartu da ingurumen osasungarria izateko eskubidea. Nahiz eta ingurumen osasungarri eta jasangarria izateko eskubidea berriaz aipatzen duen xedapenik ez egon, ez Hitzarmenean, ez bere protokolo gehigarrietan ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak behin eta berriz aitortu du, jurisprudentzia bidez, gizakientzat ondorio larriak dituzten ingurumena andeatzeko modu jakin batzuek, baita agintari publikoek arrisku ekologikoekin zerikusia duen informazioa emateko ezgaitasunak ere Hitzarmeneko xedapenetan babestuta dauden zenbait eskubide urra ditzaketela, hala nola bizitzeko, intimitaterako edo jabetzarako eskubideak. Era berean, Giza Eskubideen Europako Gutunak ezartzen duenez, EBren politiketan aintzat hartu eta bermatu behar da



ingurumena neurri handi batean babestu eta hobetuko dela, garapen jasangarriaren printzipioari jarraiki.

Aurkezpena: **Francisco Fernández Marugán**, Espainiako herriaren defendatzailea.

Hizlaria: **Luis López Guerra**, Konstituzio Zuzenbideko katedraduna eta GEEAko magistratua.

* * *

11:00 - 13:00 – LEHEN LAN-SAIOA

Ombuds erakundeenen eginkizuna ingurumenaren gobernantza egokiaren printzipioa gauzatzeko orduan

Saio horretan aztertuko da eskubideen defentsa-erakundeek zer eginkizun duten ingurumenaren gobernantza egokia sustatzeko orduan, batez ere ingurumen arloan informazioa jasotzeko, parte hartzeko eta justiziarako eskubideen gauzatzeko-maila hobetzeko orduan. Eskubide horiek Europako zuzenbidetik eta nazioarteko tresna nagusietatik eratorriak dira, Aarhuseko Hitzarmenetik kasu (ingurumen arloan informazioa eskuratzeari, jendeak parte hartzeari eta justizia jasotzeari buruzkoa da hitzarmen hori).

Horretarako, hauxe proposatzen dugu: bi adituk gaiaren atarikoia egitea; ondoren, hiru defentsa-erakundek kasu praktikoak azaltzea, eta gobernu kanpoko bi erakundek gizarte zibilaren ikuspegia adieraztea. Aurkezpen horien ostean, eztabaida irekia hasiko da.

Dinamizatzailea: **Caty Arévalo**, ingurumen arloko kazetaria (EFE Agentzia).

1. Sarrera:

- **Juli Ponce Sole**, Bartzelonako Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko irakaslea: "Ingurumen arloko gobernantza egokia: ingurumenaren gaineko erabaki 'diskrezionalak' arrazoitzea eta herritarrek parte hartzeko duten eskubidea".
- **Anaïs Berthier**, Client Earth-eko senior abokatua: "Ingurumen arloko gobernantza egokia, herritarrek ingurumen arloan informazioa eskuratzearekin, jendaurrean parte hartzearekin eta justizia jasotzearekin lotuta".



2. Kasu praktikoak:

- **Reinier Van Zutphen**, Holandako herriaren defendatzailea: "Espagetia holandar erara eta ingurumen arloko beste plater batzuk".
- **Kornelija Marzel**, Esloveniako Giza Eskubideen defendatzailearen ondokoa, Esloveniako Giza Eskubideen defentsa-erakundea.
- **Francisco Javier Enériz Olaechea**, Nafarroako arartekoa: "Hobekuntzak ingurumen arloko informazioa jasotzeko eskubidean eta horren bermeetan".

3. Gizarte zibila:

- **Rosy Battaglia**, ingurumen arloko kazetaria eta Italiako Cittadini Reattivi plataforma digitalaren sortzailea: "Defentsa-erakundeen eginkizuna ingurumen arloko gobernantza egokiaren printzipioa betetzeko orduan".
- **Cristina Álvarez Baquerizo**, ingurumena babesten espezializatutako abokatua: "Defentsa-erakundeen eginkizuna ingurumen arloko gobernantza egokiaren printzipioa betetzeko orduan".

4. Eztabaida irekia:

Beste kasu, esperientzia eta ohar batzuk egingo dituzte eskubideen defentsa-erakundeek eta jendarteko beste parte-hartzaile batzuek.

* * *

14:00-16:00 – BIGARREN LAN-SAIOA

Ombuds erakundeek ingurumena kontrolatzen duten eginkizuna, klima-aldaketa eta energia-eredu jasangarri batera igarotzea

Saio horretan aztertuko da legedietan zer tresna eta mekanismo sartu diren administrazio publikoek ingurumen arloan burutzen dituzten plan eta programak ebaluatzeko. Plan eta programa horien bidez, prebenitu eta gutxitu egin nahi dira zarata, aire kutsadura edo ur kutsadura sor dezaketen giza jarduerak ekar ditzaketen arriskuak eta kalteak.

Orobat, saio horretan egungo energia-eredua aztertuko da, eta zer urrats egin behar diren gizarte-eredu jasangarriago eta berotegi-efektua duten gas-emisio gutxiagoko batera igarotzeko. Energia-eredu berri hori eraikitzeko, funtsezko hiru zutabe hartu behar dira oinarritzat: energia-eredu seguru eta kalitatekoa; eredu jasangarria, aurreztean, energia-eraginkortasunean eta energia-iturri berriztagarrietan oinarritutakoa; eta, azkenik, eredu gardena, parte hartzea ahalbidetzen duena, deszentralizatua.



Horretarako, hauxe proposatzen dugu: bi adituk gaiaren atarikoa egitea; ondoren, bi defentsa-erakundeek kasu praktikoak azaltzea, eta gobernuz kanpoko bi erakunde batek gizarte zibilaren ikuspegia adieraztea. Aurkezpen horien ostean, eztabaida irekia hasiko da.

Dinamizatzailea: Caty Arévalo, ingurumen arloko kazetaria (EFE Agentzia).

1. Sarrera:

- **Wioletta Dunin-Majewska**, Energia arloko Zuzendaritza Nagusiko politiken koordinatzaile ohia, Europako Batzordea: "Europako lehentasunak energia-eredu berri batera igarotzean".
- **Antonio Vercher**, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Ingurumen eta Hirigintza arloko fiskal koordinatzailea (Espainia): "Kutsadura kontrolatzen duten erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa".

2. Kasu praktikoak:

- **Maja Hasanbasic**, giza eskubideak babesteko aholkularia, Kroaziako Herriaren Defendatzailea.
- **Erwin Janssens**, Flandesko herriaren defendatzailearen ondokoa, Flandesko Herriaren Defendatzailearen Zerbitzua: "Ombuds erakundeen bitartekotza eta haize-sorgailuak: NIMBY eta mugaz haraindiko alderdiak".

3. Gizarte zibila:

- **Mikel González-Eguino**, ikertzailea, Basque Center for Climate Change (BC3) (Espainia): "Energia trantsizioa eta gizartearen onargarritasuna: Espainian elektrizitateari BEZ murriztua ezartzearen ondorioak".

4. Eztabaida irekia:

Beste kasu, esperientzia eta ohar batzuk egingo dituzte eskubideen defentsa-erakundeek eta jendarteko beste parte-hartzaile batzuek.

16:00 - 17:30 – MINTEGI TEKNIKOAK

Esperientzia gehiago aztertzeko eztabaida teknikoa.

1. **Aarhuseko Hitzarmena: Ombuds erakundeen eginkizuna ingurumen arloko erabakiak hartzean.** Elkarrekin buru izango dira Günther Kräuter, Austriako herriaren defendatzaile eta ONIko idazkari nagusia baita, eta Mahito Shindo, Wasedako (Japonia) Unibertsitateko Zientzia Fakultateko irakasle laguntzailea bera.

2. **Ombuds erakundeek sareak sortzea, gizarte jasangarria lortzeko**, Gyula Bándi buru dela, geroko belaunaldietarako herriaren defendatzailea baita (Hungaria).

Osteguna, 2018ko maiatzaren 17a

9:00 - 11:00 – HIRUGARREN LAN-SAIOA

Ombuds erakundeen eginkizuna baliabide naturalak eta biodibertsitatea iraunarazteko neurriak ezartzean

Lan-saio horren bidez aztertuko dira naturaguneak, desagertzeko arriskuan dauden espezieak, biodibertsitatea eta habitat eta paisaiak babestu eta iraunaraztearekin zerikusia duten neurri politikoak eta bermeak. Erreferentzia-esparru gisa, Bernako Hitzarmenetik (Europako basabizitza eta natura ingurunea iraunarazteari buruzkoa) eta Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarautik (habitat naturalak eta basoko fauna eta flora iraunarazteari buruzkoa) eratorritako konpromisoak zenbateraino ezartzen eta betetzen diren aztertuko da.

Horretarako, hauxe proposatzen dugu: bi adituk gaiaren atarikoak egitea; ondoren, hiru defentsa-erakunde kasu praktikoak azaltzea, eta gobernu kanpoko erakunde batek gizarte zibilaren ikuspegia adieraztea. Aurkezpen horien ostean, eztabaida irekia hasiko da.

Dinamizatzailea: Caty Arévalo, ingurumen arloko kazetaria (EFE Agentzia).

1. Sarrera:

- **Eladio Fernández Galiano**, Europako Kontseiluaren Kultura, Natura eta Ondare Saileko zuzendaria: "Europako Kontseiluaren lehentasunak Europako basabizitza eta natura ingurunea iraunaraztean".
- **Mario Sáenz de Buruaga**, Natura-baliabideen Aholkularitza-enpresako biologoa (Espainia): "Jarduera egokiak otsoa bezalako espezie basatiak iraunarazteko, tokian tokiko erkidegoetan sortzen diren gatazken aurrean".

2. Kasu praktikoak:

- **Ülle Madise**, Estoniako justizia kantzilerra: "Basoen jabeak eta arranoak Estatuaren aurka. Arraina ur-errota zaharraren aurka".
- **Jesús Maeztu Gregorio de Tejada**, Andaluziako herriaren defendatzailea: "Doñanako gasbide-proiektuaren kasua".



- **Rosemary Agnew**, Eskoziako zerbitzu publikoetarako herriaren defendatzailea: "Ingurumen arloan erabakiak hartzeak zer-nolako garrantzia duen Eskoziaren identitaterako eta ekonomiarako".

3. Gizarte zibila:

- **Lucía Peña**, SEO BirdLife-en ordezkaria Euskal Herrian (Espainia): "Elkarteen eginkizuna eta beren proposamenak biodibertsitatea eta espezie basatiak hobeto babesteko".

4. Eztabaida irekia:

Beste kasu, esperientzia eta ohar batzuk egingo dituzte eskubideen defentsa-erakundeek eta jendarteko beste parte-hartzaile batzuek.

11:00 - 11:45 – Taldeko argazkia eta kafea hartzeko etenaldia

11:45 - 12:30 – ONDORIOAK ETA AMAIERA

- **1. lantegiko ondorioak azaltzea, Günther Kräuter** eta **Mahito Shindoren** eskutik. Lehenbizikoa, Austriako herriaren defendatzaile eta ONIko idazkari nagusia da, eta, bigarrena, Wasedako (Japonia) Unibertsitateko Zientzia Fakultateko irakasle laguntzailea.
- **2. lantegiko ondorioak azaltzea, Gyula Bándiren** eskutik, geroko belaunaldietarako herriaren defendatzailea baita (Hungaria).
- **Hiru lan-saioretako ondorioak azaltzea, Manuel Lezertua Rodríguez** arartekoaren eskutik (Euskadiko herriaren defendatzailea).
- **Amaiera ofiziala, Iñaki Arriola** Lópezen eskutik, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburua baita.